

## GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL KONTSEILUA (GZEK)

### 2011-6-24ko OSOKO BILKURAKO AKTA

Gasteizen egina (Seminarioa)  
Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 67

#### DEIALDIA EGITEN DUENA:

**Lehendakaria: Gemma Zabaleta Areta andrea.**- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua.

#### LEHENDAKARITZA ETA IDAZKARITZA:

- Lehendakaria ez denez bertaratu, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren  **jarduneko lehendakaria** Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Gaietako sailburuorde **Fernando Fantova Azcoaga** jauna izan da.
- Kontseiluko lehendakariak izendatuta, **Angel M. Manero González jauna** Gizarte Gaietako Zuzendaritzako Gizarte Gaietako Arloko arduradunak **Idazkari** titular gisa jardun du.

#### BILDUTAKO KONTSEILUKIDEAK:

**Alfonso Gurpegui Ruiz jauna.**- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.

**Maite Iruretagoiena Iburguren andrea.**- Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailaren Droga Gaietako Zuzendaritza.

**Mariola Serrano Argüeso andrea.**- Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko Genero Indarkeriaren Biktimen Laguntzarako zuzendaria.

**Ignacio Rodriguez Puertas jauna.**- Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Gazteriako zuzendaria.

**José Manuel Meaurio Antón jauna.**- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Immigrazioko zuzendaria.

**María Dolores García García andrea.**- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Familia eta Komunitate Politikarako zuzendaria (Gizarteratzeko Zuzendaritza).

**Miren Amilibia Urcelay andrea.**- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako Goi Ikuskaritzako zuzendaria (Laneko Z).

**Ana Tellería Echeverría andrea.**- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko aholkularia.

**Cristina Madinabeitia Olariaga andrea.**- Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Turismo Zuzendaritza.

**Cándido Hernández Garduño jauna.**- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria.

**M<sup>a</sup> Eugenia Alkiza Eizagirre andrea.**- Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Saileko Lurralde Zuzendaritza.

**Arantxa Elizondo Lopetegi andrea.**- EMAKUNDE Emakumearen Euskal Erakundeko idazkari nagusia.

**Jon Etxebarria Orue jauna.**- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Gizarteratzea Sustatzeko zuzendari nagusia.

**M<sup>a</sup> del Mar Zabala Mardaras andrea.**- EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteko zuzendari nagusia.

**Irene Berasaluze Lazkano andrea.**- EUDEL Euskadiko Udalen Elkartea.

**Oscar Seco Revilla jauna.**- EUDEL Euskadiko Udalen Elkartea. Etxebarriko Udala.

**José Manuel Odriozola Azurmendi jauna.**- EUSKO FEDERPEN Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkartetako Lurralde Federazioa.

**Iñigo Iriarte Lejarraga jauna.**- FEVAS Adimen Ezintasuna dutenen aldeko Elkarteen Euskal Federazioa.

**Juan Carlos Sola Guzman jauna.**- ELKARTEAN EAEko Desgaitu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailea.

**M. Jose Cano Mesías andrea.**- FEDEFES Euskadiko Eri Psikiko eta Senide Elkarteen Federakuntza.

**Natalia Díez-Caballero andrea (HIRUKIDE).**- Familia Batzorde Iraunkor Sektorialeko ordezkaria.

**Miguel Angel Ruiz Díez jauna** (Hiesaren aurkako Arabako Batzordea).- Droga-mendetasunen esparruko erakundeen ordezkaria.

**Alberto Ponti jauna** (Agintzari S. Coop).- Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialeko ordezkaria.

**Karmele Acedo Gil andrea** (Servicios Sociales Integrados S. Coop).- Euskadiko Lan Elkarteen Kooperatiben Konfederazioko ordezkaria.

**Juan Ibarretxe Kareaga jauna** (EAPN Euskadi).- Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorreko ordezkaria.

**Mayte Díaz de Lezana andrea** (Harresiak Apurtuz).- Etorकिन Laguntzarako GKEen Koordinakundearen ordezkaria.

**Gotzon Villaño Murga jauna.**- EAEko Gizarte Laneko Elkargo Ofizialak.

**Emilia Málaga Pérez andrea.**- Euskadiko UGT.

**Idoia Intxaurbe Fernández andrea.**- ELA Sindikatua.

#### **BERTARATU EZ DIRENAK:**

**Gemma Zabaleta Areta andrea.**- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua (GZEK-ko lehendakaria).

**Inés Ibáñez de Maeztu Izaguirre andrea.**- E. Jaurlaritzaren Giza Eskubideetako zuzendaria.

**Koldo Hualde Mayo jauna.**- Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Plangintzako zuzendaria.

**Felisa Piedra Gao andrea.**- CCOO. Euskadi.

**Beatriz Martxueta Pérez andrea.**- LAB sindikatua.

**Consuelo Ordejón Caballero andrea.**- EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundeko Aholku Batzordearen Ordezkaria

**Amparo Villar Saenz andrea** (Aldarte Elkartea).- Gay, lesbiana eta transexualen erakundeen ordezkaria.

**Roberto Vidal Failde jauna.**- Euskadiko Gizarte-hezitzaileen Elkargoa.

## **BERTARATU EZ DIREN KIDEAK**

Arabako Foru Aldundiko **ordezkari bat**.

Gipuzkoako Foru Aldundiko **ordezkari bat**.

EAEko Udaletako (EUDEL) **ordezkari bat**.

Eusko Legebiltzarreko (Lan eta Gizarte Ekintzako Batzordea) **ordezkari bat**.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko **ordezkari bat**.

EAEko zentzumen-desgaitasunen arloko erakundeetako **ordezkari bat**.

Enpresa-erakundeetako (CONFEBASK) **lau ordezkari**.

## **KONTSEIUA GONBIDATUTA BERTARATU DIREN BESTE BATZUK**

**Luis Pérez Fernández jauna**, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako psikologo-elkargoak ordezkatzuz.

.....

## **JORRATUTAKO PUNTUAK ETA HARTUTAKO ERABAKIAK**

Quorum nahikoa izanik, lehen deialdian Osoko Bilkura behar bezala eratu da, aurretik idazki bidez bidalitako deialdian adierazitako tokian eta egunean. Bilkura 2011ko ekainaren 24ko goizeko 09:10ean hasi da, lehendakariak finkaturiko honako **gai-zerrenda** honi jarraiki:

1. Aurreko bileraren akta onartzea (2011-01-28).
2. Gizarte Zerbitzuen Goi Ikuskaritzaren plana aurkeztea.
3. EAEko Gizarte Zerbitzuen I. txostenaren gomendioak onartzea.
4. Gizarte Zerbitzuen Plan estrategikoari buruzko nahitaezko txostena ematea.
5. Gizarte Zerbitzuen Erregistroak arautzen dituen Dekretuaren proiektuari buruzko nahitaezko txostena ematea.
6. Transexualitateari buruzko Lege-proiektu Integralaren gaineko nahitaezko txostena ematea.
7. Euskadiko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen 2010eko urtarrilaren 27ko Aginduaren ebaluazioari buruzko informazioa, eta 2001ko urtarrilaren 3ko Aginduari buruzko informazioa.
8. Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen garapenera eta aplikaziora bideratutako jardunei buruzko informazioa.
9. Galde-eskeak

.....

Jarduneko lehendakariak ongi-etorria eman die bertaratuei eta bertaratu izana eskertu die, azken hauteskundeetan ostean eratze-fasean dauden Foru Aldundietako ordezkariak bereziki. Gainera, lehendakaria bertaratu ezin izan dela adierazi du, eta beste zenbait ordezkariak bilkuran parte hartzeko gonbidapenari uko egin diotela.

## **Gai-zerrendaren aurreko proposamena; 5. puntua kentzea.**

Bertaratuek bere burua aurkeztu dute, eta jarraian, gai-zerrendan bildutako gaiari heldu aurretik, aurretiko gai bati heldu diogu, hain zuzen ere gai-zerrendaren 5. puntua (“Gizarte Zerbitzuen erregistroak arautzen dituen Dekretu-proiektuari buruzko nahitaezko txostena ematea”) kentzeko PROPOSAMENARI. Izan ere, ohikoa denez, osoko bilkuraren aurretik Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoaren bilkura egin da (zehazkiago, atzo, ekainaren 23an egin zen). Bilkura horretan parte hartu zutenetako batzuek puntu hori gai-zerrendatik kentzeko eta oraindik nahitaezko txostenik ez emateko eskaera egin zuten, alegazioak egin ahal izateko eta ondoren alegazio horiek eztabaidatzeko nahikoa denbora izateko. Horregatik, puntu hori gaur hemen aztertzeak ez luke inolako zentzurik izango, eta horrenbestez Gai-zerrendatik kentzea erabaki dugu.

Ondoren, Gai-zerrendan bildutako puntuak aztertzeari ekin diogu, eta lehenik eta behin bertaratuei gogora ekarri zaie mahai gaineko karpeten barruan badituztela dokumentu osagarri batzuk eskura, bere garaian bidali ez zirenak (bidalitako hori ez da bikoizten edo errepikatzen, baina hemen hura biltzen duten zenbait karpeta ditugu soberan, norbaitek horien premia izan dezakeelakoan).

### **1. puntua. 2011ko urtarrilaren 28ko Osoko Bilkurari dagokion Akta onartzea.**

Bidalitako behin-behineko txostenari oharririk egin ez zaionez, 2011ko urtarrilaren 28an egindako aurreko Osoko Bilkuraren akta aho batez onartu da.

### **2. puntua.- Gizarte Zerbitzuen Goi Ikuskaritzaren Plana aurkeztea.**

- **Fernando Fantova** jaunak gogorarazi du Goi Ikuskaritza Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Legean –2008an onetsitakoan– aurreikusita dagoela. Eusko Jaurlaritzak du esleituta, eta Dekretu baten bitartez garatu da araudi-arloari dagokionez (abenduaren 14ko 238/2010 Dekretua). Dekretu horretan aurreikusten denez, Goi Ikuskaritzak egin behar du Jardueren Urteko Plana. Hainbat kontsulta, aldaketa eta abar egin ondoren, Gizarte Zerbitzuen Goi Ikuskaritzaren zuzendari izendatutako **Miren Amilibia** andreak aurkeztu du gaur Zerbitzuen Euskal Kontseiluan, atzo Erakunde arteko Organoan aurkeztu zen modu berean.

- **Miren Amilibia** andreak adierazi du ez duela plana (entregatutako dokumentua) berrikusi nahi, planari buruzko gogoeta batzuk egin nahi lituzkeela baizik.

Horrela, Planaren jarraipena, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen edukietan eta aginduetan kokatuta egoteaz gain, beste lege batzuen eduki eta aginduen eraginpean ere badago, esate baterako, normalean "Mendetasunaren Legea" eta "Adingabearen Legea" izenez ezagutzen direnen eraginpean, mendetasuna eta haurren babesgabetasuna Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean bilduta baitaude.

Planean bildutako “Printzipioei” dagokienez, zera nahi da, gai horretan eskumenak dituzten Administrazio guztiek parteka ditzatela. Garrantzi handiko printzipioak dira horiek, hala nola Berdintasuna, Ekitatea, Komunikazioa, Harmonizazioa, Gardentasuna, Lankidetzeta, edota Kalitatea; Kalitatearen printzipioa oso nabarmena da eta Goi Ikuskaritzak izan beharreko ikuspegi etikoarekin lotura handia du. Etika hori ez da Zerbitzuetako profesionalen egitekoarekin bakarrik ulertu behar; horretaz gain, aipaturiko printzipioen errespetuari ere badagokio, herritarrei eman beharreko arretari behar bezala erantzuteko Administrazioek aintzat hartu behar duten errespetuari, hain zuzen ere.

Zaintza-eginkizuna aipatu du Goi Ikuskaritzaren funtsezko eginkizun gisa, ez kontrol orokor edo zehaztugabe legez, fiskalizatorako tresna legez baizik. Gizarte Zerbitzuetako arau-edukien betearazpena fiskalizatzeko jomuga du, betiere herritarrek aitortuta dituzten eskubideetan oinarrituz, arau-eduki horiek erabat berma daitezten.

Ekintza-ildoei dagokienez, bestalde, zazpi aurkeztu dira, hala nola Goi Ikuskaritzaren sorkuntzari buruzkoa eta beste erakunde batzuekiko (Aldundiak eta Udalak) eta Hirugarren Sektorearekiko lankidetzarako estrategiak, besteak beste. Nabarmendu beharrekoa da Hirugarren Sektorea garrantzitsua dela funtsezko ardatz gisa, batetik, informazio-iturri den aldetik (errealitatea ezagutzen duelako), eta bestetik, lankidetzaren iturri ere badelako (zerbitzuen kudeatzaileak). Hortaz, bi plano elkartzen dituzte: Sistemak eskaintzen dituen prestazioen eta zerbitzuen erabiltzaileen ordezkariena eta boluntariotzaren bitartez gizarte-partaidetza errazten duten entitateen kudeatzaileena; boluntariotzak oso egiteko garrantzitsua du esparru horretan.

Lehen blokearen jomuga zera da, gizarte-zerbitzuen egungo errealiterako hurbilketa objektiboa eta objektibagarria egitea, hots, EAEn dagoenaren erradiografia antzeko bat lortzea. Orokorra den eta aldi berean lurralde eta eskualdeen arabera "mapeatuta" dagoen errealitatea, garatzen ari den araudiari, zerbitzuak baliatzeko moduari, zerbitzuak kudeatzen ari diren moduari eta abarri dagokienez, betiere bete beharreko araudiaren betearazpenean oinarrituta. Jakintza objektibatu horretatik abiatuz, Gizarte Zerbitzuen Goi Ikuskaritzak etorkizunean gauzatu beharreko ekintzak planteatuko lirateke.

- **Gizarte Zerbitzuen sailburuordeak**, aurkeztutako dokumentua kontuan hartuz eta Miren Amilibia andreak errealitatearen inguruan egindako aurkezpena eta gero, hitz egiteko txanda bat ireki du, Osoko Bilkurara bertaratu diren pertsonen iruzkinak egin ditzaten eta zalantzak azal ditzaten, besteak beste.

Inork ez du iruzkinik egin, eta beraz, Gizarte Zerbitzuen Goi Ikuskaritzaren Plana aurkeztutzat jo da.

### **3. puntua.- EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Txostenaren Gomendioak onartzea.**

- **Fernando Fantova** jaunak gogorarazi du GZEKk urtean behin ematen duela EAEko Gizarte Zerbitzuen egoerari buruzko Txosten bat. Bere garaian, Kontseiluko kideei dokumentu bat entregatu zitzaion, eta azken urteotako dinamikarekin jarraituz, gomendioen zati espezifikoa lan xehatuagoa eskatu du oraingoan ere. Izan ere, honelaxe egin da kasu horretan: beste urte batzuekin konparatuz aldakuntza berezirik ez zegoela kontuan hartuz, gomendio horien bertsio bat igorri da; zenbait ekarpen jaso ondoren, dokumentuan txertatu dira ekarpen horiek.

Hortaz, orain gomendio horiek onestea dagokio, bertaraturako pertsonen hitz egin ahal izateko txanda ireki ondoren.

- FEDERPEN Euskadi Federazioko **Txema Odriozola** jaunak jakinarazi du dokumentua bizkor berrikusi ondoren testuaren edukian islatuta ez dituela ikusten egin zituzten ekarpenak. Bereziki interesatzen zitzaion ekarpen bat aipatu du, erakunde artean zein agenteekin izandako elkarriketa, hain zuzen; ekarpen horretan Elkarriketa Zibileko Foroa berariaz aipa zedin nahi zuten.

- **Fernando Fantova** jaunak esan du epean jasotako ekarpen ugari, haren entitatearenak (FEDERPEN) nahiz FEVAS federazioarenak, Bizkaiko Foru Aldundiarenak eta Hirugarren Sektorearen Mahaiarenak (besteak beste) bildu egin zirela. Jakina, beharbada ez daude hitzez hitz bilduta, egindako ekarpen desberdinen arteko oreka bilatuz baizik (FEDERPENen kasuan, bereziki gizarte- eta osasun-esparrukoak diren ekarpen batzuk jasota daude). Eta, zehazki, elkarriketa zibilaren ingurukoa jaso egin da, eta 12. orrialdean agertzen da.

- **Txema Odriozola** jaunak, gizarte- eta osasun-esparrura itzuliz, prentsan egindako bi agerpen aipatu ditu; agerpen horietan zera adierazi zen, esparru hori beharbada Osasun Sailak kudeatu beharko lukeela (Bengoa sailburuak ez du baieztapen hori gezurtatu), gaur egungo kudeaketa-formularen kontra (Aldundiei dagokie esparru horretako gaien kudeaketa). Horrek kezka handia eragin zien, eta Gomendioan gai horren gaineko aipamenik ez denez egin, argibideren bat eskatu du.

- **F. Fantova** jaunak azaldu du Gomendioetan ez dela horren gaineko ezer ere agertzen, eta Gomendio horiek Gizarte eta Osasun Arretarako Euskal Kontseiluan aho batez lortutako akordioan oinarrituta daudela (geroago egindako eztabaidak ez daude Gomendioetan bilduta).

- **Txema Odriozola** jaunak partaidetza ekonomikoaren gaiari heldu dio; izan ere, Zerbitzuen Zorroaren eztabaidaren muinean dago partaidetza ekonomikoa, eta beraien aburuz, testuan egoitza-eredua baino ez zegoen jasota, etxez etxeko laguntza gehien erabiltzen direnetako bat bada ere (baita kostu handiena dakarrena ere). Orobat, enplegua sortzearen eta sustatzean alorrean egindako iruzkina eta zaintzaileen lanbide-prestakuntzari dagokionez beraiek aditzera emandako zailtasunak ere aipatu ditu, eta halaber, etxez etxeko arretako “ikuskatzaileen” figura ezagutzen ez duela ere adierazi du. Azkenik, emandako zerbitzuen kalitateari egin beharreko jarraipena txertatzea proposatu zutela gogorarazi du.

- **Fernando Fantova** jaunak erantzun dio esanez prestakuntzen gaineko aipamena 5. orrialdean bilduta dagoela eta era berean, Gomendioetan ere jasoarazi zela zaintzaileek mendeko pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko familia-ingurunean emandako arreta bermatzeari buruzkoa. Orobat, Gomendioen 3., 5., 6. eta 7. orrialdeetan badaude emandako zerbitzuen kalitateari jarraipena egiteari buruzko erreferentziak.

- Bizkaiko FAko **Jon Etxebarria** jaunak, ELA Sindikatuko **Idoia Intxaurre** andreak, eta EUDELEko **Mar Zabala** andreak esanbidez agertu dute aurkeztutako testuari buruzko abstentzioa.

- EUDELEko **Oscar Seco** jaunak, aitzitik, testua arras osatua dela deritzo, eta beraz, testu horri atxiki zaio.

**Jarduneko lehendakariak**, adierazpen gehiago egin ez direnez, GZEKren Gomendioak onartutzat jo ditu, arestian aipatutakoen hiru abstentzioekin.

#### **4. puntua.- Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoari buruzko nahitaezko txostena.**

- **Gizarte Gaietako sailburuordeak** ia bi urteko denbora-tartean egin den lana nabarmendu du; denbora-tarte horretan, testuaren zati ugari GZEKtik pasatu dira hainbat unetan. Bereiziki erakunde arteko esparruan landu dira, eta Elkarriketa Zibileko Mahaian bildu dira ekarpenak. Hortaz, jada badago testu bat, gaur nahitaezko txostena eman behar zaiona, hain zuzen ere.

Gogorarazi duenez, Kontseilu honetan, eta oro har, nahitaezko txostena emateko jarraitzen ari den jarraibidea honako hau da: testuari dagokionez, Kontseiluko kideek adierazten dutena aktan jasotzea nahitaezko txostena izango dela, betiere norbaitek bozketa egitea nahi ez badu. Kasu horretan, txostena bozkatuko litzateke. Bozketarik eskatzen ez bada, testuari dagokionez jasotako adierazpenak (halakorik badago) –aldekoak nahiz kontrakoak zein ñabardurak– joko dira nahitaezko txostentzat.

Argibide horren ondoren, **Fernando Fantova** jaunak hitz egiteko txanda ireki du, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren testuaz jarduteko eta eztabaidatzeko.

- Bizkaiko FAko **Jon Etxebarria** jaunak atzo Erakunde arteko Organoaren bileran esan zena errepikatu du. Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoari buruzko hainbat bilera egin dituzte Foru Aldundiek eta Eudelek Jaurlaritzarekin, eta horretaz gain, zera aitortu du, egia esan, Planean jorratutako guztia adostasunez eta denak bat etorri izan dela, eta honenbestez, ez dela inolako arazorik egon horri dagokionez.

Alabaina, Gizarte Zerbitzuei buruzko legean bildutakoari jarraiki, Plan Estrategikoak oso garrantzitsutzat jotako hainbat idatz-zati izan behar ditu. Horietako bat Gizarte Zerbitzuen Mapa dugu, eta horretaz gain, Planaren kostua jasoko duen Txosten Ekonomiko bat ere bildu behar du. Funtsezko bi idatz-zati horietako ezin ez da agertzen Planean.

Hori dela-eta, aurkeztuta dagoen moduan, Plana “osorik ez dagoela” deritzote Foru Aldundian. Eta zalantzarik gabe, ez dator Legean ezarritakoarekin bat. *“Plan hori ez litzateke horrela aurkeztu beharko, Plan erabat osotzat hartzeko guztiz funtsezkoak diren bi hanka falta baitzaizkio”*. Dituen gabeziak direla-eta, Planari nahitaezko txostena emateko unea ez dela deritzote. Ez dago gaizki duenagatik, falta zaionagatik baizik, hau da, arestian aipaturiko bi gabeziengatik.

Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 35. artikulua araberan, Plana onetsi ondoren, Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarrean aurkeztu behar du. Eusko Legebiltzarrean gerta litekeen polemika saihesten saiatu beharko litzateke, Planari bi hanka horiek falta zaizkiolako, hain zuzen. Horregatik, nahitaezko txostena ez litzaioke eman beharko eta ez litzateke aurrerapausorik eman beharko (Legearen 35. artikulua betearazpenari dagokionez) gaur egun biltzen duenarekin (halere, horrekin ados daude, FAekin eta Eudelekin eztabaidatutakoagatik); horren ordez, kontrako iritzia *“falta zaionagatik da, eta ez beste ezergatik”*.

- EUDELeko **Iruñe Berasaluze** andreak Jon Etxebarria jaunak esandakoa berretsi du, biltzen duenagatik ez dagoelako kontra, falta zaionagatik baizik: mapaz eta zorroz gain, memoria ekonomikoa eduki behar du planak. Beraiek ere zerbait falta zaiola deritzote, eta EUDELe atzo Erakunde arteko Organoan adierazitakoa berretsi dute.

- **Gizarte Gaietako sailburuordeak**, Jaurlaritzak gai horren inguruan duen iritzia adierazteko, honako hau esan du: *“Jaurlaritzak, funtsean, zera nahi du, lehen hitz egin duten bi pertsona horiek adierazitakoari balioa ematea, hain zuzen: gutxienez erakunde arteko esparruan (eta ikusiko dugu zein heinetan gertatzen den gauza bera Kontseiluko beste parte-hartzaile batzuen kasuan), aurkeztutakoaren edukari dagokionez erabateko adostasuna dago”*. Eta bere aburuz, horixe da benetan balio duena.

*“Guk uste genuen akordioa urrutiago iristen zela, hau da, akordioaren bitartez honako hau interpreta genezakeela: jakinda (eta testuan bertan jasota dago) oraindik legearen garapenarekin lotutako mapa eta memoria ekonomikorik biltzen ez dela, Jaurlaritzan dugun pertzepzioa da (Kontseiluaren zein Organoaren aktetan eta bileretan), biltzen zuena kontuan hartuz, izapide zitekeela, eta horrenbestez, uste izan dugu eta uste dugu nahitaezko txostena behar duela. Nolanahi ere, Jaurlaritzak akordioari balioa ematean kontzentratuko da funtsean, eta horrexegatik, beste alderdia ere aztertzeko prest gaude. Edo beste modu batean esanda, akordio horri balioa emanez, nolabait, Jonek aipatu dituen beste hankak egotea nahi genuke, plan gisa izapide dadin edo ez: erabaki horrek, gure aburuz, zerikusi handiagoa du egin daitekeen interpretazio juridikoarekin. Erakunde arteko Organoaren atzoko bileran izan genuen iritzi horren berri, hots, edukiarekin bat zetozela eta izapidetzea bidezkoa ez zela (bi elementu horiek falta direlako), baina, hori guztia gorabehera, nahiago izan dugu Planari nahitaezko txostena ematea, funtsean, Kontseiluko gainerako kideek edukiarekin duten adostasun-maila ezagutzeko xedez. Jaurlaritzak, organoak atzo emandako nahitaezko txostenaren eta gaur hemen emango denaren ondorioz, jada daukagunari buruzko adostasun-maila egiaztatu ahal izango du, eta baita erabaki bat hartu ere (aholkularitza juridikoa jaso ondoren), Jaurlaritzaren Kontseiluan eta Legebiltzarrean izapidetzea bidezkoa izateari edo ez izateari dagokionez. Erabakia edozein dela ere, honako hau jakitea bidezkoa dela deritzogu: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako eragileok zein heinetan dugun antzeko ibilbide-orria. Are gehiago kontuan hartuz guztiok dakigula maparik eta memoria ekonomikorik ez egotearen arrazoiak ez dela ahalegin guztiak ez egin izana; inguruabar jakin batzuekin du zerikusia, batez ere, egungo egoera ekonomikorekin”*.

- EUDELeko **Oscar Seco** jaunak Plana balioesteko eskatu dio Jaurlaritzari, osorik ez dagoen tresna bada ere. Bere aburuz, “plan estrategiko” bat denez gero, hots, “estrategia” bat, falta diren bi elementuak ezinbestekoak ote diren ikusi beharko da. *“Gizarte Zerbitzuetarako ona den prozesu hori amaitutzat hartu behar ote den ikusiko dugu (estrategia bat zehazten baita). Amaitutzat hartuz gero, aukera paregabea galduko genuke, eta horretaz gain, Legezko aginduak ez genituzke beteko (kasu horretan, ez genituzke beteko)”*.

Bere ustez, estrategia baten zehaztapenean jarraitzea (zehaztapen mugatua bada ere) prozesua paralizatuta izatea baino komenigarriagoa litzateke. Posibilista izatearen aldekoa da, erakunde artean dagoen akordioa garatzeko aukera ematearen aldekoa, hain zuzen ere (horri dagokionez, badago akordioa). Falta denak ez dezala aurrerabidea oztopatu (alde batera utz daiteke, edo bestela, aurrerago jaso).

- **Alfonso Gurpegui** jaunak honako hau adierazi du: *“falta diren bi gauzak Plan Estrategikoaren ekintza gisa txertatuta daude. Hori ez litzateke beharrezkoa izango honako lau elementu hauek egon izan balira: diagnostikoa, mapa, plana eta memoria. Izan ere, mapa eta memoria ezin izan dira egin, funtsean, zorroa ez dagoelako osatuta: Eta horren arrazoi nagusia zera da, Legea onetsi zenean aditzera emandako aurreikuspenak ez datozelako bat gaur egun bizi dugun egoera ekonomikoarekin. Eta horrek oztopatzen du, hain zuzen ere, zorroa –mapa ixteko funtsezko elementuetako bat– ixtea. Egoera hori “begizta” kaltegarri antzeko bat bilakatu da, eta honenbestez, gure ustez, begizta horretatik irteteko, mapa eta memoria ekonomikoa sortzea txertatuko lukeen estrategia bat proposa genezake, sistema finkatzeko ekarpena zela ulertuz, juridikoki posible ote zen alde batera utzita (hori jakiteko, hainbat kontsulta egingo dira). Horixe da, hain zuzen, Jaurlearitzaren ikuspegia eta apustua”.*

- **Jon Etxebarria** jaunak aurreko adierazpenetan esan dituen hainbat gauza nabarmendu nahi izan ditu: *“ezin dugu pentsatu gure herrialdeko gizarte-zerbitzuak plan hori dugunean hasiko direla funtzionatzen. Gizarte-zerbitzuak funtzionatzen ari dira dagoeneko, eta plana oraindik ez dago prest, baina, hala eta guztiz ere, hoberena horrelako plan bat edukitzea litzateke, jakina”.*

Gizarte Gaietako sailburuordeak egindako interpretazioari gagozkiola, honako hau ñabartu du: *“dagozkien balioespen ekonomikoak biltzen dituzten plan estrategikoak daude. Beste batzuek, ostera, agian ez dituzte horrelakoak, plana zein motatakoa den eta zertarako den kontuan hartuz. Baina kasu zehatz honetan, legearen 35. artikulua eztaba daezina da. Plan estrategiko bat egiteko jaso zezakeen soil-soilik (hainbat jarraibide, ildo estrategiko eta abarrekin), besterik gabe. Baina, are gehiago, bi idatz-zatitan adierazten du “mapa jasoko duela, eta txosten ekonomikoa edukiko duela”. Kasu horretan, artikulua esanbidezko adierazpen horrekin, zaila da geroago plana beste edozein modutan interpretatzea, beste esanahi bat ezin baitu eduki”.*

Bere iritzia zein den esan du berriz ere, eta sailburuak adierazitakoa onartu du, hots, planak ibilbide-orriak direla, hain zuzen ere. *“Oso ibilbide-orri garrantzitsua, sinatzen dutenak moralki konprometitzen dituenak, planek arau- edota lege-maila ez badute ere, egia delako plana sinatzen duena ados dagoela harekin, jakina, eta gainera, konpromiso bat eta jarraitu beharrek noranzko bat dituelako”.* Horregatik, aurrera egin behar dutela deritzote, arazoa korapilatsua dela badakite ere, batik bat zorroari dagokionez; hala eta guztiz ere, orain arte bezala lan egiten jarraitu behar dela uste dute. Era berean, adosturiko zatia positiboa dela deritzote, baina halere, orain plan horri nahitaezko txostena ematea komenigarria ez dela errepikatu du.

- **Idoia Intxaurbe** andreak adierazi du Jon Etxebarria jaunarekin bat datorrela, eta nabarmendu du plana ez dagoela osatuta legean ezarritako zenbait elementu falta zaizkiolako (zehazki, mapa eta beste hainbat gauza). Horri dagokionez, nahitaezko txostena ematea ez dute onartzen, ezta haren alde jokatzeko ere.

- **Gizarte Gaietako sailburuordeak** ELA sindikatuko ordezkariari argitu dio nahitaezko txostena “ematen ari direla”, eta hori dela-eta, planteaturikoaren edukiaren alde ez dagoela esan nahi duela uste duela.

- **Idoia Intxaurbe** andreak jasoarazi du kezkatuta dagoela lan-baldintzen eta plan horren barruan ekimen pribatuari ematen zaion bultzada handiaren kontuarekin. Zera adierazi du, denbora guztian ari direla esaten plan hori erakunde artekoa dela eta adostuta dagoela; horregatik, orain aldundietan gertatzen ari diren aldaketak direla-eta, foru-ordezkari berrien iritzia aurretiaz jasotzea garrantzitsua dela deritzote.



- EAPN Euskadi sareko **Juan Ibarretxe** jaunak gogorarazi du bere garaian ekarpen zehatzak egin zituztela, eta horietako zenbaitzuk islatuta geratu direla. Hala eta guztiz ere, kezka eragiten dioten hiru gauza ñabartu nahi lituzke, jasota gera dadin.

1.- Lan-baldintzen gaia. Memoria ekonomikoa egiterakoan, kontuan hartu behar da sektoreko erreferentziazko hitzarmenak zeintzuk diren, eta hitzarmen horiek errespetatu eta bete behar direla.

2.- Enplegu-sistemaren gaian, hau da, ildoen arteko garrantzitsuenetakoa. Soil-soilik, "koordinazioa" aipatzen da helburuen artean, baina oso orokorrean. Egindako ekarpena askoz ere osatuagoa da jardunei dagokionez, zehazki, honako hauek duten garrantziari dagokionez: laneratze-enpresen sustapenak, laguntza biltzen duten programa berezien sustapenak, kooperazio-ereduen sorkuntzaren sustapenak, eta abarrek.

3.- Lotura publiko/pribatuaren gaia. Itun-erregimenaz hitz egin dute, eta berriz ere ñabartu zuten Administrazio Publikoaren kontrataziorako araudian bilduta ez dagoen itun-erregimen berezi batez hitz egiten ari dela, (hala ere, erregimen espezifiko hori esanbidez dago Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean aurreikusita).

- **Gizarte Gaietako sailburuordeak** EAPN sareko arduradunari erantzun dio, 2. eta 3. gaiari dagokionez.

2.- EAPN sareak egindako ekarpenak gizarte-zerbitzuen eta enpleguaren arteko koordinazio-generiko horretan bildu ziren, laneratze-enpresak sustatzean aditua enplegu-sistema bera dela uste baitzuten. Beste kontu bat da Gizarte Gaietatik sarearekin lan hori koordinatzen ibili behar ote den. Baina zera pentsatu zuten, proposatutako jardun batzuk beste sistema baten eskumenekoak zirela, eta horregatik, modu horretan biltzen eta adierazten saiatu ziren.

3.- Itun-erregimen bereziari dagokionez, aproposena berriz ere ez esatea zela kontsideratu zuten, hain zuzen ere, legeak jasotzen duelako. Edonola ere, gizarte-zerbitzuen legeak adierazten du itun-erregimen berezi bat dela, eta ez kontratuen legediak biltzen duen ituna.

- Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialeko ordezkari **Alberto Ponti** jaunak nabarmendu du plan estrategiko hori (kasu honetan, erakunde arteko lan bat) ibilbide-orri bat baino gehiago dela: konpromiso-orri bat da. *"Gardentasun- eta komunikazio-ariketa da, herritarrekiko eta gizarte-zerbitzuen garapenean lankidetzan dihardugun sektoreekiko konpromisozkoa, eta horregatik, beharrezkoa derizot"*. Horregatik, ez edukitzearen eta "osorik ez" edukitzearen artean aukeratu behar denez, berak nahiago du zerbait edukitzea eta Planak aurrera egitea (erreferentzia- eta planifikazio-tresna gisa). Eta funtsezko garrantzia izanik erantzun bat beharko luketen baina erantzunik eman ez zaien gabezien eta esparruen kasuan, horiek zehazteko konpromiso bat ezar dadin ere nahiko luke (zehaztapen hori 1. planaren hedatzean bil daiteke).

- **Fernando Fantova** jaunak honako hau nabarmendu nahi luke: *"nahitaezko txosten horretan edo dugun elkarrizketa horretan bi plano desberdin daude. Plano horietako batek igorri dizuegunaren edukiarekin zerikusia du, eta oraingo, edukiaren balioespen negatibo edota aurka-egite bakarra ELA sindikatuak adierazitakoa izan da. Eta beste planoari buruz, ostera, zera adierazi behar dugu, adostutako eduki hori (nik ulertzen dut konprometitzen zaituztela) gaur egun dagoen moduan izapidetu behar dela"*.

Pertsonalki, eta baita Jaurlaritzaren ordezkari gisa ere, bigarren mailakotzat hartzen du Plan legez izapidetzeko prozesuarekin jarraitzeko erabakia, edota aztertzekoa edo bitarteko bideren bat hartzekoa (juridikoki aholkatzen diotenaren arabera hartuko da bitarteko bide hori). *"Legeak jasotzen duen Plan legez izapidetze edo ez izapidetze horri dagokionez, Kontseiluak ere bere iritzia eman lezake, logikoki; izan ere, ikusten ari gara erakundeek hainbat ikuspuntu dituztela kasu zehatz horri dagokionez"*.

Baina benetako garrantzia duena zera da, “*Kontseiluak gaur dugun edukiarekin duen adostasun- eta konpromiso-maila zein den jakitea. Ildo horretatik, hausnarketa hori egiteko eskatuko nizueke, hemen baitugu ibilbide-orria, erakundeok ados baikaude ibilbide-orri horrekin, konprometituta, eta halaber, Kontseilua ere konprometi baitaiteke gaur*”.

Bi plano horiek bereiztea ezinbestekoa dela uste du, eta honenbestez, baita “*ibilbide-orri gisa, lehentasun gisa, epe gisa, konpromiso gisa edo dena delako gisa ados ote gauden esatea*” ere. Akordio-maila hori Kontseiluaren ondarea litzateke, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren kontsulta-organo gorena baita”.

Guztion iritziz hori bildu nahi duela nabarmentzen du egindako adierazpenen bitartez, eta horretarako, **Gizarte Gaietako sailburuak** honako bi galdera hauek egin ditu:

- 1.- Erakunde arteko Akordioaren (hots, igorri diguzuen dokumentua) edukiaren gainean Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluan adostasuna dagoela ulertu behar al dugu, ELAren kasuan izan ezik?
- 2.- Kontseiluko kideren batek nahi al du Planaren izapidetzearekin jarraitzeari edo ez jarraitzeari buruzko iritzirik adierazi nahi?

Lehen galderari dagokionez, eta bertaratuek erantzunik eman ez dutenez, sailburuordeak Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren baieztapena bildu du aurkeztutako edukian.

Bigarren galderari gagozkiola, **Jon Etxebarria** jaunak Bizkaiko Foru Aldundiak adierazitakoa errepikatu du.

- EAEko Gizarte Laneko Elkargo Ofizialen ordezkari **Gotzon Villaño** jaunak adierazi du Gai-zerrendaren 3. puntuko gomendioetara itzuli direla; honako hauek lortu behar direla jasotzen da bertan: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema finkatzea, eskariari erantzutea, erritmo bizkorragoa ezartzea, bat-etortze politikoa ikusgarri jartzea eta erakunde arteko adostasuna lortzea, hau da, “*Kontseiluak berak erakundeei egindako gomendioei eusten diegu*”.
- **Txema Odriozola** jaunak erakunde arteko akordioa balioesten du, ibilbide-orri bat dagoela esan nahi baitu horrek. “*Orain, mapa eta memoria ekonomikoa zerbitzuen zorroaren gaiarekin lotuta daude, hau da, oso arazo korapilatsua da, eta guztia egon arte atzeratzen badugu, hori ez litzateke onetsiko*”. Aurrera egiteko, konfiantza-botoa eman du, testuan ibilbide-orri gisako akordio bat baitago, “*eta gainerakoa egingo da, pakete beraren barruan dagoelako guztia*”.

• **Gizarte Gaietako sailburuordeak**, adierazpen gehiago egin ez direnez, agertu du nahitaezko txostena honela geratuko litzatekeela antolatuta: Kontseiluko kideek aurkezturiko dokumentuaren edukiari dagokionez, akordio orokorrarekin, ELA sindikatuko ordezkariaren adierazpena izan ezik. Eta geroago erantsiko lituzkete Plan gisa izapidetzeko prozesuaren aukerari eta egokitzapenari buruz egindako adierazpen guztiak. Jaurlaritzaren esku geratzen da izapidetze horrekin lotutakoa guztia (atzeratzea edota jarraitzea), kontsulta juridikoa egin ondoren azkenean hartzen duen erabakiaren arabera; modu egokian emango du azken erabaki horren berri.

Orobat, ELAren gomendioari dagokionez, adierazi du erakunde guztien arduradun berriekin albat lasterren jarriko direla harremanetan (arduradunak aldatzen badituzte), lan egiten jarraitu ahal izateko.

## **5. puntua.- Gizarte Zerbitzuen Erregistroak arautzen dituen Dekretuaren proiektuari buruzko nahitaezko txostena ematea.**

Gai zerrendatik kendu da, batzar-hasierako akordioa dela-eta.

## **6. puntua.- Transexualitateari buruzko Lege-proiektu Integralaren gaineko nahitaezko txostena ematea.**

- **Jarduneko lehendakariak** hitz egiteko txanda bat ireki du lege-proiektuari buruzko oharrik, kexarik edo bestelako adierazpenik dagoen jakiteko, izapidetzearekin jarraitzeko Kontseiluak eman behar duen nahitaezko txostenari dagokionez.

- UGT Euskadi taldeko **Emilia Málaga** andreak sarreran adierazi duenez, bere ustez nahastu egin dira, lege-proiektua jaso zutenean planteatu beharreko alderdi batzuk ikusi zituztelako, baina ez zitzaien bururatu alde zurretik bidaltzea. Hortaz, azpimarratu beharra dago proiektuari buruzko iritzia eman beharko balute, orain dagoen moduan, ados egongo liratekeela, baina aprobeixatu egingo du planteatu nahi zituzten alderdi batzuk aurkezteko:

1.- Badago hainbat alditan jasotzen den termino bat, hala nola “diskriminazio positiboa” (Zioen Azalpenean, 15. artikuluan...), haren ustez Europako arauditik hartutako terminologiara egokitu beharko litzatekeena. Horrela, “diskriminazio” kontzeptua arlo antijuridikorako geratzen da bakarrik, eta benetako berdintasunaren alde legediak sustatzen dituen hitzarmen guztietarako erabiltzen dena “ekintza positiboa” da.

2.- Atentzioa eman die Zioen Azalpenean jasotako idazkuntzak (juridikoa), hainbat arrazoiengatik, esate baterako, galdera erretoriko bat dago, amatasunaren gaia aipatzen duena, konparaketak eginez. Gero badago Joan Herrerak legebiltzarrean egindako esku-hartze baten zuzeneko aipamena... *“Lege baten Zioen Azalpenaren barruan gauza horiek agian ez dira oso egokiak”*.

3.- Aplikazio-eremuari dagokionez, gaizki ulertu ez badute, ikusi dutenez, Lege-proiektua pertsona guztiei aplikatu behar zaie, salbuespenik gabe, egoera irregularrean dauden atzeritar guztiak barnean hartuta. 2. artikuluan hori ondorioztatzen dela dirudi. Eta ados daude, baina bizilekua dutenei buruz hitz egiten denean idazkuntza pixka bat iluna geratzen dela iruditzen zaie: egia esan, ez da argi geratzen benetako bizilekuari edo bizileku administratiboari buruz hitz egiten den. Haiek proposatzen dute aplikazio-eremuari buruz hitz egitean erroldatuak dauden pertsona guztiak biltzen dituela azaltzea (orain idatzia dagoen moduan, ez da oso ondo argitzen).

4.- Azkenik, 10. artikuluan aipatzen diren ugalketa-eskubideei dagokionez, bertan adierazten da sexu-orientazioagatiko edo genero-identitateagatiko diskriminaziorik ezin dela egin. *“Transexualen Arreta Integraleko Lege-proiektu bati buruz hitz egiten badugu, ziur asko sexu-orientazioari egiten zaion erreferentzia, kasu honetan, ez da egokiena”*.

- Emakunderen idazkari nagusi **Arantxa Elizondok** hitza hartu du, ezaugarri horietako proiektu bat aurrera eramateagatik Sailari eta, zehazki, Sailburuordetzari zoriondu eta bileraren Aktan eta/edo txostenean jaso dadin. Izan ere, aurrerapen garrantzitsua da pertsonen oinarritzko eskubideen bilakaeran, eta proiektu honetan egon eta ekartzeagatik zoriontzen da.

- **Gizarte Gaietako sailburuordeak** zoriontzeagatik eskerrak eman ditu, eta beste iruzkinen bat eskatu du, halakorik badago. Horrelakorik ez dagoenez, Transexualitateari buruzko Lege-proiektu Integralari buruzko nahitaezko txostena emandakotzat jo du.

**7. puntua.- Euskadiko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen 2010eko urtarrilaren 27ko Aginduaren ebaluazioari buruzko informazioa, eta 2011ko urtarrilaren 3ko Aginduari buruzko informazioa.**

- **Fernando Fantova** jaunak adierazi du gai horri Kontseiluan heldu zaiola aurreko bileretan, Esku-hartze Sozialaren Hirugarren Sektorearekin diru-laguntzen ekintzaren alorrean bere Sailak 2010ean ezarritako berrantolaketa garrantzitsuaren ondoren. Horrexegatik, hain zuzen, Agindu horren ebaluazio berezi bat egin zen; Kontseiluko kideei igorri zaie ebaluazio berezi hori, jarraian Gizarte Zerbitzuen zuzendariak haren berri emango du, eta ondoren, iruzkinak egiteko txanda irekiko da.

- **Alfonso Gurpegui** jaunak zehaztu du igorritako dokumentua 2010eko ebaluazioa dela, eta prozesuan parte hartu zuten entitateek jakinarazitako iritziez gain (diru-laguntza eskatu zuten entitate guztiei inkesta bat egin zitzaien posta elektronikoko bidez, azkenean diru-laguntza hori eman ote zitzaien alde batera utzita), ebaluazio-prozesuan Saileko talde teknikoak egindako lanaren ekarpenak ere biltzen ditu, diru-laguntzak esleitzeko prozesua hobetze aldera.

Era berean, jardunbide egokiekin zerikusia duen alderdi bat ere biltzen du dokumentuak; dokumentu horri "publizitatea emateak" atzerapen txiki bat dauka. Hemendik gutxira Sailaren webgunean 2010eko laguntzetatik aukeratutako 35 jardunbide egokiak "esekiko" dituztela aitortu du, eta horretaz gain, aditzera eman du jardunbide egokiak diru-laguntzen deialdi osoan continuum bat izan daitezen lortzeko tresna bat sortzen ari direla.

Halaber, honako hau ere adierazi du: 2011ko deialdia (jazko antzeko kopurua aurkeztu da deialdi horretara, zehazki, 900 bat proiektu) erabakitzen ari da gaur egun, eta berehala hasiko dira 2012ko diru-laguntzaren deialdirako Agindua sortzen, beti bezala, Agindu horri heltzen dioten entitateen kezka nagusietako bati (ebaluazioetan bildu da) erantzuten saiatuz, aurkezteko nahiz ebazteko epeak aurreratzen saiatu behar dutela, hain zuzen ere.

Nabarmendu beharrekoa da aurten izapideak bizkortzeko aplikazio informatiko berri bat abian jarri dela, eta espero zirenak baino arazo gehiago ematen ari dela aplikazio berri hori; alabaina, datorren ekitaldian izapidetze-prozesuak bizkortzeko aurreikuspen hori beteko dela espero du.

2011n eta aurreko urtean proiektu kopuru antzeko samarrak aurkeztu dira (zehazki, 2011n apur bat gutxiago, 900, hain zuzen ere; 2010ean, berriz, 1050), eta zuzkidura ekonomikoa ere antzeko samarra izan da bi urte horietan.

- **Gizarte Galetako sailburuordeak** diru-laguntzen jardueraren ebaluazio horren inguruko galderak, iruzkinak eta antzekoak egiteko txanda ireki du.

- Etorकिन Laguntzarako GKEen Euskadiko Koordinakundearen ordezkari **Mayte Díaz de Lezana** andreak galdetu du jardunbide egokiek in batera entitateen "izen-abizenak" adieraziko ote diren.

- **Alfonso Gurpegui** jaunak erantzun dio proiektu bakoitzerako fitxa bat eratuko dutela, eta baita "jardunbide egokitzat" hartzeko atzemandako elementu bakoitzerako ere. Ikasteko eta jakintza transmititzeko tresna ona izan daitekeela balioetsi du.

- Droga-mendetasunen esparruko Erakundeen ordezkari **Miguel Angel Ruiz Díez** jaunak aurreko kontseiluetan diru-laguntzei buruz agertutako ildo berari eutsi dio. Droga-mendetasunen esparruan diharduten erakundeek kezka bat dutela jakinarazi du, aurten diru-laguntzen agindua nola geratuko ote zen, hain zuzen ere, gertatzen ari diren eskumen-aldaketak direla-eta (Jaurlaritzaren baitako berrantolaketa).

laz diru-laguntzen aurka zeudela adierazi zuten, baldintzak eta programak hobetuko ez zituela baitzeritzoten. Bazekiten krisialdia zela-eta hainbat murrizketa egin beharko zituztela, baina tratamendu-alde handiak ikusi dituzte 2010ean; horrela, 2010ean entitate handiak ondo mantendu ziren. Baina ondorez handia egon da erakunde txikienetan, “*eta beharbada, guk egiten dugu lan gehien probintzia-esparruan, baina esparru autonomikoak, haatik, asko eragin digu balioespenetan. Droga-mendetasunen kasuan eta beste hainbat sektoretan (horrelakoak txikiak izan ohi dira esku-hartze sozialaren barruan: drogak, prostituzioa, eta abar), berrantolaketa horretan, lege berriaren ondoren, sektore handiak lehenak izango zirela uste genuen, eta horregatik, kezkatuta geundela adierazi genuen*”.

Bere aburuz, sektore txikiak eta ertainak gaizki atera ziren iaz, eta aurten ere horien egoera ez da aldatuko. Irtenbideak zeintzuk diren ikusteko itxaron egin beharko dute, eta beti izango dute errekursoak aurkezteko aukera. Baina bere ohiko giroan (drogena eta bazterkeria larriarena), hots, osasun-sistemaren eta gizarte-sistemaren artean kokatzen diren lurralde horietan, oraindik ez dago argi sektore horiek guztiak nola geratuko ote diren zorroaren barruan, eta horrenbestez, Kontseiluari helarazi nahi izan dio horrek eragiten dien kezka. Azkenik, Jaurlaritzaren Sailen artean koordinazioa egon dadin eskatzen du, eskualdatzeen eta zehaztapenen abagune horretan, bestela sektore ahulenak gaizki aterako baitira.

- **Mayte Díaz de Lezana** andreak esan du erabat ados dagoela (Harresiak erakundeko ordezkari gisa nahiz AGLE erakundeko ordezkari gisa) Miguel Angel Ruiz jaunak esandakoarekin. Itota daude erabat, eta ez daude ados egun erabiltzen ari den sistemarekin. “*Oso handiak ez diren elkarteetarako ezinezkoa da ezartzen diguten erritmoarekin jarraitzea*”.

- Elkartean konfederazioko **Juan Carlos Sola** jaunak honako hau gogorarazi du: “*hainbat gauza komentatu ditugu denbora-tarte horretan, eta gure aburuz, diru-laguntzen dekretuak hobekuntza-ibilbide garrantzitsua du, ikus dezakegun bezala*”. Arestian aipatutakoa alde batera utzita, eta ondoren ebatziko denez gero, praktika positibotzat –eta oso zentzuzkotzat– hartzen du Ebazpenean ematea (diru-laguntza ematen zaienean nahiz ematen ez zaienean) balioespenetan jarraituriko irizpideari buruzko informazioa (zer balioesten den eta zer ez, zergatik egin ote zaion uko proiektu jakin bati, eta abar). Gardentasun hori oso ona litzateke Hirugarren Sektorerako. Horretaz gain, diru-laguntzen ildoen zenbatekoen arazoa ere aipatu du, zehazki, handiagoak beharko luketela, baliabide horren bitartez jasotzen eta finantzatzen baitira elkarte-mugimenduan egin ohi diren jarduera ugari.

### **8. puntua.- Gizarte Zerbitzuetako 12/2008 Legearen garapenera eta aplikaziora bideratutako jardunei buruzko informazioa.**

- Gizarte Zerbitzuetako zuzendari **Alfonso Gurpegui** jaunak, aurreko hainbat Osoko Bilkuretan egin duen bezalaxe, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen garapenarekin eta aplikazioarekin lotutako gai guztietan Eusko Jaurlaritzak egin dituen urratsen berriak eskaini du. Hori guztia, gaur karpetan entregatutako dokumentuari –2011ko ekainaren 24koari– jarraiki.

Egoeraren berriarekin zuzendariak eman die garrantzi berezia, hala nola *Gizarte Zerbitzuei buruzko Informaziorako Zerbitzuari*; arestian aipatutako zerbitzuaren Prototipoa aste honetan bertan aurkeztu da. Puntu horretan, amaierarako Sistema hori hasi ahal izango dela aurreikusita dago, gutxienez haren zatietakoren bat funtzionatzen hasten denean, hain zuzen.

*Telegarantziaren* alorrean, bestalde, Zerbitzu Publikoa (Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa da jada zerbitzu hori) uztailearen 1ean hasiko da funtzionatzen, eta orain arte hainbat ezaugarriekin eman izan den zerbitzu bat bateratuko du horrek (prestazioak, estaldurak, eta abar). Horrela, Eusko Jaurlaritzak urtarrilaren 1etik uztailearen 1era bitarte Foru Aldundiekin ezarri zituen kudeaketa-aginduak amaituko dira; telegarantziaren zerbitzu publiko hori arautuko duen dekretu berria indarrean hasiko da uztailearen 1ean. Adierazitako zerbitzu hori enpresa publiko baten bitartez emango da (OSATEK), eta kontuan hartuz arestian aipatutako enpresak Osasun Sistemarako ere lan egiten duela, bi esparru horien –gizarte-alorrekoaren eta osasun-alorrekoaren– artean koordinatutako telegarantziaren ahalbidetuko du horrek.

- **Gizarte Gaietako sailburuordeak**, zehaztapen horien eta bertaratuek puntu horretan egindako beste hainbat zehaztapenen ondoren, argibideetarako, zalantzetarako eta abarretarako hitz egiteko txanda ireki du.
- Elkartean konfederazioko **Juan Carlos Sola** jaunak galdetu du ekimen horiek Plan Estrategikoan bildu behar ote diren, edo horren ordez, Sailaren beraren ekimenak baino ez ote diren.
- **Fernando Fantova** jaunak, horri dagokionez, argitu du aurreko legegintzaldiko azken uneetan “azken plan estrategiko” dei genezakeena –legearen aurrekoa– onetsi zen, eta azkenean, plan hori onetsi egin zen. Dokumentu horrek jardun jakin batzuk jasotzen zituen, baina gaur hemen xehatu direnek ez diote heltzen dokumentu edo plan horri, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak berak txertatu beharreko jardun gisa markatutakoei baizik. Legearen betearazpenaren ondoriozko jardun horiek Legebiltzarrean eta Kontseiluan “ibilbide-orri” gisa aurkeztutakoak ditugu. Eta orain egiten ari garena zera da, horiek nola egikaritzen ari diren jakinarazten.
- Eusko Federpen-eko **Txema Odriozola** jaunak, *Gizarte- eta Osasun-koordinazioari* buruzko 13. puntuari dagokionez (bertan parte hartzeko hainbat aldiz eskatu badu ere, parte-hartze hori ezinezkoa izan da), eskatu du Hirugarren Sektorera helarazteko Erakunde arteko Batzordea gauzatzen ari den gizarte- eta osasun-berrikuntzaren gaineko lanei eta proiektuei buruzko informazioa, jada hiru bilkura egin baitira.
- **Fernando Fantova** jaunak esplikazio labur bat eman du (Jaurlaritzaren ordezkari gisa), gizarte- eta osasun-esparruaren eta proiektu horien gainean berak duen ideari buruzkoa, lehendakariak iaz urtearen hasieran emandako mintzaldi batean jakinarazi zuen erabaki bat lehen erreferentzia gisa hartuta, zehazki, gizarte- eta osasun-berrikuntzarako Zentro bat eratzeko erabakia, hain zuzen ere. Ekimen hori hainbat Sailen partaidetza (Jaurlaritzaren Lehendakariak eta Osasuna) nahiz kanpoko partaidetza duen fundazio baten bitartez ari da hezurramitzen, eta hemendik gutxira aurkeztuko da jendaurrean, gaia oso aurreratuta baitago.

Zentro horren jomuga zera izango da, Euskadik zahartzearekin, desgaitasunarekin, mendetasunarekin, kronikotasunarekin eta abarrekin loturiko gaietako berrikuntzan erreferente eta lider izaten jarrai dezan lortzea (eta baita lidergo hori areago dezan lortzea ere, hori posible bada), Euskadin ekimen ugari baitaude osasun-esparruan, gizarte-zerbitzuen esparruan eta teknologien esparruan, eta gobernu-koordinazioarekin eta -bultzadarekin zein udal-esparruko, esparru foraleko, Hirugarren Sektorereko eta sindikatuen esparruko partaidetzarekin herrialde gisa lan egiteko oso baldintza onak ahalbidetzen dituzte horrelako ekimenei.

Halaber, eta esparru horren ildo beretik, **Gizarte Gaietako sailburuordeak** gogorarazi du Sailak hitzarmen bat sinatu duela Matía-Ingema Fundazioarekin (oso hitzarmen garrantzitsua), etxebizitzako lanaren esparruko ikerketa-proiektu jakin batzuk, eta zehazki, esperientzia pilotu jakin batzuk garatzeko hitzarmen bat, hain zuzen; hitzarmen hori jendaurrean aurkeztu zen bere garaian.

Izan ere, bere aburuz, gizarte- eta osasun-esparruko berrikuntzak etxebizitzako lana biltzen du funtsean, baina ez eskusiboki; autonomia-mugak dituzten pertsonen etxe- eta komunitate-esparruan egoteko aukera izan dezaten lortzea da horren jomuga.

Aldi berean, Telelaguntza Zerbitzuekin (OSATEK enpresaren bitartez), zerbitzua bera emateaz gain, zenbait proiektu berritzaile ere sustatu nahi dira, eta hainbat entitaterekin ari gara lanean hori erdiesteko. Dagokionean aurkeztuko da hori guztia, logikoa denez.

Jardun horiek guztiak, hein handi batean, aurrekontuan sartu gabeko ezohiko funts bati esker abiarazi ahal izan dira; ezohiko funts hori, Sailaren apustu estrategiko legeaz, gizarte- eta osasun-berrikuntzarako erabili da. Horri dagokionez, elkarrekin noranzko horretan bultzatzeko edozein iradokizun eta ekarpenetara irekita dagoela eman du aditzera.

- **Txema Odriozola** jaunak galdetu du Jaurlaritzak kudeatuko duen telelaguntza “telemedikuntzarekin” (ez dakite oso ondo zertan datzan telemedikuntza) lotuta egongo ote den, eta hala egongo bada, nola; dirudienez, zerbitzu hori ere OSATEK sozietateak kudeatuko du.

- **Fernando Fantova** jaunak honako hau erantzun du: Jaurlaritzaren ordezkari gisa, foru-erakundeek eta Gasteizko Udalak eman duten telelaguntza-zerbitzua baldintza onenetan bere gain hartzeko erronka duela gaur egun, funtsean. Hori esan eta gero, itxaropen handiak dituztela aitortu du, gizarte-zerbitzuen telelaguntza eta Osasun Sailaren kanal anitzeko zerbitzuak plataforma beraren bitartez kudeatuko direlako eta horrek ildo horretan sinergiak ahalbidetuko dituelako (lan integraztaile horren aurrekariak badaude bertan).

Gizarte- eta osasun-esparruari dagokionez interes eta kezka handia dituela nabarmendu du, askotan egoitza- eta ospitale-esparruarekin egon baita lotuta ia esklusiboki, eta esparru hori oso garrantzitsua bada ere, *“etxebizitza- eta komunitate-esparruarekin oso lotuta dagoela ere ulertu behar baitugu; izan ere, nazioarteko joerak eta biztanleriaren lehentasunak norabide horretan doaz: etxebizitzan eta komunitatean jarraitzea”*.

#### **9. puntua.- Galde-eskeak.**

- **Txema Odriozola** jaunak eskerrak eman dizkio Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluari bilera 10:00etan hasi delako, 09:00etan hasi beharrean, eta gainera, aurreko bilkuraren batean eskatutako zerbait eskatu du berriz ere jardunbide egoki gisa: ekarpenak biltzen dituzten dokumentuak bidaltzen dizkietenean, onartutako eta onartu gabeko idatz-zatiak edo gaiak zehaztuz erantzun diezaietela (zuzenketak izango balira bezala).

Galde-eske gehiagorik ez dagoenez, 2011ko ekainaren 24ko 11:30ean amaitutzat eman da bilkura.

IDAZKARIA

OE  
Jarduneko LEHENDAKARIA